



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko azaroaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko azaroaren bian, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IÑARRA François
Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio

Deialdiaren eguna : 2021eko urriaren 29a

Afitxatze eguna : 2021eko urriaren 29a

1.ERABAKIA CLECT TXOSTENAREN BAIEZTATZEA

Nomenklatura : 5.7

Lurraldeko elkargoen Kode Orokorra ikusirik ;

Zergen Kode Orokorra ikusirik, eta batez ere Zergen Kode Orokorreko 1609 C artikulua ;

Euskal Hirigune elkargoko, Transferitu Karguen Ebaluatze Komisio Lokalaren (CLECT) konposaketa finkatzen duen, 2020eko uztailaren 31ko, Kontseilu komunitarioaren erabakia ikusirik ;

Transferitu Karguen Ebaluatze Komisio Lokaleko (CLECT) kideen lista finkatzen duen, 2021eko maiatzaren 4eko, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariaren erabakia ikusirik ;

Transferitu karguen ebaluatzeari buruz, 2021eko irailaren 15ean, Transferitu Karguen Ebaluatze Komisio Lokalak (CLECT) egin txostena ikusirik ;

Herriko kontseiluak, bere iritzia emaitera gonbidatua dena, txostengilearen hitza entzunik eta eztabaidaturik :

- Transferitu Karguen Ebaluatze Komisio Lokalaren (CLECT), 2021eko irailaren 15eko, txostena, gehigarrietan presentatu bezala, ONARTZEN du ;

- Auzapez Jauna, erabaki honen aplikaziorako baliagarriak eta beharrezkoak diren urrats guzien egitera, baita honi doazkion dokumentu guzien izenpetzera, AHALBIDETZEN du.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balitzko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko azaroaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/11/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/11/05ean.

